



ZERBITZU ASISTENTZIALA

3 urtetik aurrerako ikasleen eskola ordutegia osatzeko zerbitzua

Hainbat familiak agertutako beharrari erantzunez, urriaren 1ean zerbitzu asistentziala jarriko dugu martxan Haur eta Lehen Hezkuntzan.

Zerbitzu eskaintza COVID19ak eragindako baldintzatarara egokitu da, funtzionamenduan eta kokapenean, egoerak hala eskatuz gero iragarritako funtzionamenduan beharrezkoak suerta daitezkeen moldaketak egingo direlarik.

Zerbitzuaren finantzazioak gutxieneko erabiltzaile kopurua eskatuko du. Hori dela eta hiruhilbate amaieratan, abenduan eta martxoan, ekonomikoki bideragarria den baloratuko da.

FUNTZIONAMENDUA

ORDUTEGIA 07:30etik 09:00etara. Ez da arratsalde eskainiko

ERABILPEN MALGUA Zerbitzuaren erabilpena malgua da ordutegietan eta erabilpen egunetan:

Sarrera ordua familien beharretara egokitu daiteke, beti ere alde aurretik zelariarekin hitzartuz gero.

Erabilpen jarraia egingo duten familiek izango dute lehentasuna.

Zerbitzua egun solteetan erabiltzeko, alde aurretik izena eman beharko da Ikastolako idazkaritzan, gehienez aurreko lan eguneko 15:00ak baino lehen 94 672 67 37 telefonoan edo audio@ikastola.eus posta elektronikoaren bidez.

GOSARIA Ez da gosaririk eskainiko.

KOKAPENA

Haur Hezkuntzako 2. zikloan, ikasle bakoitzak bere ikasgelan egingo du egonaldia.

Lehen Hezkuntzan zerbitzua erabiliko duten ikasleek Haur Hezkuntzako 4 urtekoen jantokian, egoitza nagusian, egingo dute egonaldia.

KUOTA Hilabeteroko erabilpenak 65€ko hilabeteroko kuota izango du. Egun solte bakoitzeko 6€ko kuota ordainduko da Ikastolako erreziboaren bidez.

TOKI KOPURU MUGATUA Zerbitzuak toki kopuru mugatua izango du. Ezarritako ikasle kopurua gaindituz gero, zerbitzua erabiltzeko izena eman duten familien arteko zozketa bidez esleituko dira tokiak.

IZEN EMATEA Zerbitzua erabiltzeko, ondorengo formularioa bete beharko da irailaren 29a baino lehen:

izena eman

